

122 atletak parte hartuko dute uztailaren 4an Gasteizen egingo den ibilketa nordikoan

Proba 2021eko Espainiako Kopako lau etapetako lehena da eta 2021eko Euskadiko eta Arabako Txapelketa ere izango da

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 1a. Gaur aurkeztu da 2021eko Ibilketa Nordikoko Espainiako Kopako lau etapetako lehena. Gasteizen izango da uztailaren 4an, eta Euskadiko eta Arabako Txapelketarako ere puntuagarria izango da.

Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak, Joxerra Aiausti Mendi eta Eskaladako Espainiako Kirol Federazioko ibilketa nordikoko kideak, Carlos Durán Hazten Kirol Klubeko presidente eta entrenatzaileak eta Daniel Arrilucea klubeko kide eta probako partaideak aurkeztu dute.

122 parte hartzailek -46 emakumek eta 76 gizonek- egingo dituzte probako 14 kilometroak Olarizuko parkeko haztegietan hasi eta amaituz. Lau itzuliko ibilbide zirkularra izango da eta 9:00etatik 12:00etara bitartean.

Parte hartzaileak Arabakoak bertakoak dira baina baita Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak, Nafarroakoak, Madrilgoak, Valentziakoak, Balear Uharteetakoak eta Kanarietakoak ere. Kategoria hauek izango dira: Promes, Senior, Beterano A, Beterano B, Beterano C eta Beterano D.

Helburua da ibilketa nordikoa ezagutzera ematea lurraldean, eta kirol modalitate gazte horren alde lehiakorra ere ikustaraztea. Horregatik, besteak beste, Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren babesa du.

Argibide gehiago hemen: www.hazten.es.